


Justizia eta erreparazioa Guatemalan sexu indarkeriako eta gizateriaren aurkako krimenen aurrean

36 urteko gerra eta giza eskubideen urraketak

- Historia Argitzeko Batzordearen (CEH) arabera, gerran zehar 160.000 exekuzio baino gehiago, 40.000 desagertze behartu, 626 sarraski eta 500.000tik milioi eta erdira lekualdatu izan ziren.
- Emakumeen aurkako indarkeria Estatuak erabilitako politika genozida eta matxinoen aurkako politiketako bat izan zen. CEHk erregistratutako biktimei dagokionez, lautik bat emakumeak ziren, eta honako indarkeria hauek pairatu zituzten: exekuzio arbitrarioak (% 33), torturak (% 19), askatasun-gabetzea (% 18), sexu-bortxaketa (% 14), desagertze behartua (% 6), lekualdatzeagatiko heriotza (% 4) eta beste indarkeria batzuk (% 5).
- CEHk sexu-indarkeriako 1.465 kasu dokumentatu ahal izan zituen. Horiek giza eskubideen beste urraketa larri batzuekin batera ere egin ziren, hala nola sarraskiekin eta desagertze behartuekin. Kasuen % 89 emakume maiei dagozkie eta % 35 neskei.



Sexu indarkeriagatiko eta gizateriaren aurkako beste delitu batzuegatiko epaiak


Biktimek eta ondoan dituzten erakundeek aurrerapen handiak lortu dituzte justizia eta erreparazioa eskuratzeari dagokionez. Hona hemen adibide ospetsu batzuk:



Sepur Zarco kasua

2016an, Guatemalako auzitegi batek bi militar ohi zigortu zituen, 1982tik 1986ra bitartean egindako honako krimen hauengatik: Sepur Zarcoko (Polochiceko arana) hamaika emakume maia kektxiren aurkako sexu-indarkeria, sexu-esklabotza eta etxeko esklabotza; hiru emakumeren hilketak eta zazpi lider komunitarioren desagertzea.

Auzitegiak hamasei erreparazio-neurri ezarri zituen eta horietako zortzitan aurrerapenak egon dira, biktimen borrokari esker.



Molina Theissen kasua

2018an, Guatemalako auzitegi batek armadako lau kargudun zigortu zituen, Emma Molina Theissenen aurkako atxiloketa ilegala, torturak eta sexu-bortxaketa eta bere neba adingabe Marco Antonioren desagertzea leporatuta. Epai horren aurretik Giza Eskubideen Amerika arteko Gorteak (CIDH, 2004) beste epai bat eman zuen, Estatuak kondenatuz.

Nazio mailako auzitegi horrek hamaika erreparazio neurri ezarri zituen, baina ez dira bete, epaia ez delako irmoa. CIDHk sei neurri ezarri zituen eta horietako hiru bete dira, familiaren borrokari esker.



Emakume atxien kasua

2022an, Guatemalako auzitegi batek PAC Autodefentsa Zibileko Patruiletako bost kide ohi zigortu zituen, 1981tik 1985era bitartean Rabinaleko (Baja Verapaz) 36 emakume atxiren aurka erabilitako sexu-indarkeriagatik eta etxeko esklabotzagatik.

Auzitegiak hamabi erreparazio neurri ezarri zituen eta horietako bitan aurrerapenak egon dira, biktimen borrokari esker.

Ordaina emateko Programa Nazionala eta bilaketa mekanismoak

- Erreparazio Programa Nazionala 2003an sortu zen, gatazka armatuan zehar egindako giza eskubideen urraketek herritarrengan eragindako kalteak erreparatzeko helburuz.
- 2023an, 57.523 espedientetarik, Programak erreparazioen bat eman zuen 27.233 kasutan (% 47,3), eta gainontzeko 30.290 kasuetan (% 52,7) erreparazioa emateko dago. Espedienteetan, gutxienez, 77.319 biktimek agertzen dira; horietatik 27.531 emakumeak dira eta 49.788 gizonak. Zenbateko horiek mugatuak dira gatazka armatuaren biktimek zibilen kopuruarekin alderatuta.
- Programak ez du ez genero-ikuspeirik ez egokitasun kultureko ikuspeirik, sexu-indarkeriako biktimei eta herri indigenei behar bezalako erreparazioa emateko.
- Biktimen eta giza eskubideen mugimenduak desagertutako pertsonak bilatzeko bi lege-ekimen egin ditu (3950 eta 5635), baina Errepublikako Kongresuak ez du bat ere onartu.

Amnistia ahaleginak eta zigorgabetasunaren aldeko ekintzak

- 2017tik 2021era bitartean, Armadaren aldeko sektoreek hiru lege-ekimen aurkeztu zituzte (5377, 5920 eta 6099) gatazka armatuan zehar egindako gizateriaren aurkako krimengatik erantzukizun penala azkentzeko.
- Giamatteiren gobernuak bake-instituzioen desegitea sakondu zuen, eta Bake Akordioaren ondorioz Estatuak sortutako organismoak indargabetu zituen, hain zuzen ere, kontuak emateko eta giza eskubideak betetzen direla bermatzeko horiek.
- Justizia-sistemak berak, gizateriaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonen mesede egiten die, justizia oztopatzen du eta biktimek kriminalizatzen dituzten txostenak ematen ditu.
- Aldi berean, Defentsa Nazionaleko Ministerioari esleitutako aurrekontuen bitartez Armada indartzen dute. Aurrekontu hori, 2024an, 3.222.251,120 ketzalekoa izan zen.



Iturriak:

- CEH (1999). *Guatemala, memoria del silencio*.
- Guzmán Orellana, Gloria (2020). *Comisión de Esclarecimiento Histórico en Guatemala. Bases para un largo camino por la verdad y la justicia de género*.
- Impunity Watch (2023). *20 años del PNR, impacto del Programa Nacional de Resarcimiento para las víctimas del conflicto armado de Guatemala*.
- Impunity Watch (d.g). *La lucha de las Mujeres Achi por la justicia*.
- UNAMG (2016). *Sepur Zarco. El camino de las mujeres hacia la justicia*.



Laguntzailea:

